



## KIROL FEDERAZIOEN LIZENTZIEI BURUZKO GOGOETAK ALARMA EGOERAN.

*Alarma-egoerak irauten duen bitartean COVID-19ari aurre egiteko arlo sozial eta ekonomikoko presazko neurri osagarriak hartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua euskal kirol-federazioen eremuari eta, zehazkiago, kirol-lizentziei aplikatzeari buruz azken egunotan jasotako kontsultak ikusita, ohar hauek egin behar dira:*

Euskal kirol-lizentzien erregulazioa Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legean (EKL) eta Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan jasota dago.

Federazioaren lizentzia dokumentu pertsonala eta besterenezina da, federazio bateko kide-izaera ematen dio titularrari eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitasuna ematen dio, betiere kasu bakoitzean ezarritako arauei jarraiki. Horren bidez, pertsona fisikoak eta juridikoak kirol-federazioetan sartzen dira.

Euskal federazioek eta lurralde-federazioek eskumena dute federazio-lizentzien dokumentu-, kirol- eta ekonomia-erregimena ezartzeko, beren eskubideak eta betebeharrak, iraupena, indarraldiaren hasiera, kategoriak, kuotak, prozedura, formatua eta antzeko beste gai batzuk finkatuz, betiere Kirolaren Legean eta aipatutako Federazioen Dekretuan ezarritakoa betez. Halaber, nahitaezko arrisku-estaldurak bermatuko dituzten aseguru kolektiboak kontratatzea dagokie.

Aipatutako legearen eta dekretuaren arabera (EKL 48. art.), lizentziek aseguru bat izango dute arrisku hauen estaldura bermatzeko: erantzukizun zibila; galera anatomikoen edo funtzionalen edo heriotza-kasuen kalte-ordaina, eta osasun-laguntza osasun-sistema publikoaren doako estaldurarik ez dagoen kasu eta esparruetarako, baldin eta kirolariak kontingentziak beste aseguru baten bidez estalita ez baditu.

Hala, bada, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak uste du lizentzien kuotak ezin direla sartu martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren aplikazio-eremuan; izan ere, kontzeptu horrengatik ordaindutako zenbatekoak ez dira ohiko kontsumoko zerbitzuen prestazio bat, baizik eta ordainketa bakarreko gizarte-kuotak, kolektibo edo erakunde jakin bateko (kirol-federazio bateko) kide izateko eskubidean oinarritzen dira, eta horrek harreman juridikoen, eskubideen eta betebeharren espektro zabalagoa sortzen du, haiek antolatutako jardueretako parte-hartze hutsaz gain. Bestalde, kirol-federazioek kuotak kobratzeko zerbitzuak ere egin ditzakete, hala nola prestakuntza-jarduerak, materialak mailegatzeko zerbitzu gehigarriak, etab.

Lizentzien kuotak, gure autonomia-erkidegoan (Federazioei buruzko Dekretuaren 25. artikulua eta hurrengoak), urtero ordaintzen dira, eta euskal federazioen eta lurralde-federazioen egitura eta funtzionamendua finantzatzeko erabiltzen dira, baita lehiaketa



ofizialetan parte hartzeko ere. Gastu horiek, neurri handi batean, eginda daude, nahiz eta jarduera mugatzen duen alarma eta osasun larrialdiko egoeran izan.

Lizentziak hainbat eskubide ematen ditu eta betebeharrak eskatzen ditu, federazioko kide izateari datxezkionak, lizentzia ematen diren unetik sortzen direnak.

Lizentziari lotutako aseguruari dagokienez, egoera desberdinak izan daitezke kirol-federazioetan. Batzuek estaldurei eutsi diete alarma-egoeran, konfinamenduan egindako entrenamenduetan izandako lesio eta istripuetarako; eta beste batzuek, dirudienez, estaldura horiek eten dituzte. Horregatik, gure ustez, federazio bakoitzak, Euskal Kirol Federazioen Batasunaren laguntzarekin, kuota-murrizketak negoziatu beharko ditu, bidezkoa bada, eta itzulketa egin behar den ala ez kontuan hartuta, erabaki beharko du horiek lizentzien prezioan eragina izango duten edo hurrengo urtekoekin konpentsatuko diren.

Azken finean, gure ustez, ez da bidezkoa federazioaren kirol-lizentzien kuotak itzultzea, ez bada hala dagokionean, kirol-aseguruari dagokion zati proportzionala murriztea edo konpentsatzea aseguru-etxearekin hitzartu delako. Eta hori federazioak berak erabakitzen duen moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 5a

**Jon Redondo Lertxundi**  
**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria**